

ZER

BIZKAÏTARRAI-BIZKAIERAZ*

267n. zenbakia
zemendia 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**BASERRITAR ESKONDUAK
(ALBERTO ARRUE)**

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

2001-2002 IKASTURTEA

OGEI TA AMALAU GARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 20.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 8AN

34.² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 20.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 8 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA



MATRICI TXORIERRIN DAGO, **BIZKAIAN**

MATRICI autogintzarako trokelak egiten dauzan baltzua da. Bosteun ta berrogeita amar beargin daukaz. Kooperatibea da eta bertako beargin eta bazkide dozu becan izenpetuten dauan idazle au. Euskera plangintzea indarrean dogu bertan eta onako idazki-eskabide au eldu eragin deutset baltzuko euskera arduradunai, bertan esaten dana kontuan euki daien:

"Bizkaiko euskaldun askok uste izan dau eurok darabilen euskereak ez dauala ezertarako balio. Eritxi oker ori ez da gaur egunekoa bakarrik, ez da barria. Leenago be erderean dala eta, betiko euskereak ez ei eban ezertarako balio, gaur egun osteran, batua dala eta, ez ei dau etxeko euskera orrek ezertarako balio. Uste okerra besteko kaltegarria. Ze ori uste izaten dauanak ez deutse, normalean, beraren umeai betiko euskera bizi ori irakatsiko, euskera transmisinoa bete -betean ebagi egiten dauala.

Bizkaiko euskerea benetan aberatsa da. Aberatsa berba eta aditzetan ez eze, esakune, morfologia eta agoskera kontuetan be bada. Aberastasun ori ez da, zoritxarrez, eskoletan eta ikastoletan irakasten. Aberastasun ori norberari gurasoak irakatsita, norberak seme-alabai irakatsikera eutsi leio bakarrik bizirik. Bizkaiko lurralde askotan euskerea egoera terminalean dago, esaterako, Mungialdean, Txorierrin, Uribe-Kostan,..., guraso askok betiko euskerea irakasteari itzi deutsoelako. Uste okerragaitik, Iotsakeriagaitik edo. Umeak eskolan ikasita, aitita-amama edo gurasoai betiko euskerea txarto dagoala esan eta zuzendutea. Au dok itzela! Erderaz jakin ez eta euskeraz txarto egiten dogula? Ikaragarria!

Txorierrikoa (Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu), Gamiz, Fika, Mungiakoa edo Arratiakoa bazara, zerean, ostantzean, semea eta alabea esango dozu. Meñaka, Larrauri, Muxika edo Lekeitiokoa bazara, zerian, ostantzian, semia eta alabia esango dozu. Leioa, Getxo, Berango, Sopena, Urduliz, Gatika, Laukiz edo Jatabekoa bazara, zerean, ostantzean, semea eta alabee esango dozu. Bakio, Bermeo, Gernika, Zornotza, Fruiz edo Bilbokoa bazara, zerien, ostantzian, semie eta alabie esango dozu. Ori guztiori eta geiago oraindikarren, alantxe uste izan ez arren be, geure euskeraren aberastasuna da. Jagon, erbabili eta irakatsi bearrekoa.

Bizkaiko euskerea geure-geurea da eta ez dogu lotsarik izan bear berori egiteko, edonon ta edonoz, agoz zein idatziz. MATRICIn bertan be. Orixe berorixe da nik bertan eskatu gura dodana. MATRICIn bertoko euskerea egitea agoz zein idatziz. Ez da normala bertoko euskaldunen artean geuretik asago dagoan euskera eredu erabiltea. Geureak geuretzako bailo dau, beti balio izan dauan lez. Ez daigun martzianoen euskerea, sano gatz eta geuretzako arrotza dana, geure arteko idatzizko zein agozko artuemonetan egin. Ez da normala norberarena ostu eta basterrean iztea, sano paranoikoa eta anaturala baiño."

**Iniaki MARTIARTU
BAKIO**

* * *

IZKUNTZ

Izkuntz eder bat ba da jakituriz beterik euskoen lurrean,, urrea dariola diño jakintsuak izkien artean. Zer daukazu lur aratz zure errai garbian itza dariona, jakituria al dozu zure biotz barruan zorutzen dabena... Izkuntzajakintsua egiz, maitagarria dau Euskalerrriak, birau zakarrik ez dau ta argia dau gidari euskaldunen miñak.

BASERRIA

Euzko lorea zara mendi ta zelaietan bizia jarrita,, or jaiio izan ziran seme-alaba onak zentzunak zainduta. Zer dozu euzko lurra... zer dozu basetxea zure erraietan... lorerik ederrenak zabaldu dozuz munduan egi omenetan. Nork argitu zinduzan ainbeste lora eder sortzeko zelaietan... poztu zaitetz basen-i... ondo egiña gaitik mundu zabalian.

PAULIN

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIKUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera errotan lagundu eziguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

AGUR T'ERDI ARRATIARI.

Diñoen lez, eta egoki esanda, "ondo jaiotako biotzen ondorioa esker-onekoa izatean datza".

Abade lez, Arratiako bailara zoragarrian iru erri zerbidu dodaz azkenengo zazpi urte oneitan: DIMA (iru urtean zear), BEDIA (tau urte) eta LEMOA (zazpi urtean zear). Eta oraiñ, Gotzaiñ jaunaren aginduari jarraituz, LEKEITIOko errira noa neure abadetzaren zerbitzua eskeintzeko asmoagaz.

Egia esan, zazpi urte ez dira asko, baiña naiko dira eurentan egin izan diranak norberaren biotza indartzeko, garbitzeko eta gaztetzeko.

1.- Indartzeko.

Aiñ maite dodazan neure abadetzako iru erri oneik (DIMA, BEDIA eta LEMOA) zintzo eta zindo sendotu dabe neure abade-biotza; bai, orixe!

Bertako jendea, oso apala, baiña bizitzako arazoetan guztiz jakintsua; geiena, jende zabala eta abertzalea; festa-zale, baiña langile trebeak eta ausartak; jende ilusionatua, baiña errealitate gogorrean finkatutakoa; gaurko mundu aldakor eta berezi onen muiñ-muiñean bizi dana, baiña asabeen irakatsiei eta oiturei eusten dakiana; jende kritikoa, baiña Eleiza eta Erria benetan maite dimana...

Aitatutako doai eta balore oneik, indartzaile eta suspertzaille bihurtzen dira norberarentzat ere. Ez dago dudarik!

2.- Garbitzeko.

Zoritxarrez, eta geicago zorionez esango neuke nik, danok doguz geure akatsak, geure gora-beeraldiak, geure mugak, geure ainbat eta ainbat "keri" eta kerizko jokabideak. Ez dago, ez, gure artean iñor besteei arririk jaurti leikionik bere burua bakarrik ontzat eukirik.

Bai bakarka edo pertsonalki eta baita talde edo erri lez, doaiak edo baloreak doguz, alde batetik, eta "kerizko" burutapenak eta jokabideak, bestetik. Burruka egoki onetan parte

artuz, apur-apurka, ia-ia konturatu barik... osotzen eta osatzen, garbitzen eta edertzen goaz bai pertsonalki, bai erri lez ere. Bizitzan ez da dana baltza, ezta zuria ere bakarrik: argia eta illuna, goiza eta gaua, egunsentia eta illunabarra, poza eta nai-gabea... ortxe datza, ain zuzen ere, gure bizitzako ibilbidearen ardatza.

3.- Gaztetzeko.

Guztiok dakiguna da zelán murriztu edo gutxitu diran abadetzarako eta lekai-me-prailletzarako bokazioak. Gure Euskadiko ainbat erri, erriko abade barik aurkitzen dira. Ez dira urte asko erri txiki batzuetan iru bat abade egoten zirana; gaur, ostera, ez dira gitxi iru erriren abade-zerbitzua daroen abade bakarrik. Oneri buruz, dato bat dogu esanguratsua: Bizkaiko Eleizbarrutiko abadeen adiñ-erdia 65 urte inguruan kokatzen da. Au onela izanik, dudarik ez dago biotz gazte eta itxaropentsukoak izatera deituta gagozana.

Baiña guretzat ementxe dago kakoa, Ebanjelioan Nikodemok Jesuseri galdetzen dautson erara: "Zelán barrero jaió zaarra izanik?. Jesus, ostera, beste jaiotza-mota bateri buruz ari da itz egiten: "Urez eta Espirituzko berjaiotza dozu bearrezko... aragitik jaioten dana aragia dalako".

Orrela, bada, Arratiako mailan, otoitzezko bizitza bat eroanik, kristau-alkartekideen eta, zelán ez!, borondate oneko gizon eta emakumeen jan-era eta jokabideetan parte artuz gaztetu dogu geure biotza. Liste dogu aurrerantzean ere orrelaxe izango dala. Ez dot nai geiago luzatu. Eskerrak emon bearrean aurkitzen naz: Arratiari, bertako Eleizeari eta, onen barruan, DIMA, BEDIA eta LEMOARI zazpi urte oneitan zear indartu, garbitu eta gaztetu nabelako neure abadetzako ministeritzan. Badakizue non nozuen aurrerantzean.

ESKERRIK ASKO!

Kepa Agirre Zelaia. Abadea.

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
UFA
.UUIJ,MIENIU
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZTA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatuikoak edo erriaren batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larrea-tegi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan.

Sariak lau izango dira:

- 1.ª 50.000 pezeta
- 2.ª 40.000 pezeta.
- 3.ª 30.000 pezeta.
- 4.ª 20.000 pezeta.
- 5.ª 10.000 pezeta.

Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKARAZALEAK

EUSKERA DA GURE EDESTIAREN GORDELEKU

Gaurdaino historia paperetatik ateratzen zan, eta gure Erriari buruzko paperak etsaien eskuetatik irten dute gizaldietan zear, franko eta goioen garaitik asiez gero.

Orduko kronika zaarrak monjeen geletan sortzen ziran eta Campion gure euskaldun idazleak zionez "El odio de los campamentos había subido a la celda de los monjes".

Praille aiek izan ziran kronika idazleak eta aien lanetik ateratzen dana zera da, alegia, euskaldunak beti izan gerala terrorista utsak. Eurok geure erriari egindako sarraskiak, berriz, oorez betetako ekintza zoragarriak ziran. Bitartean gu ixilik, ez bait genduak idazle kronika zalerik: "cortos en contallas y largos en facellas".

Gaurko egunez, ordea, ba dira beste bide batzuek edestia egiteko, paperak ez direnak: arkeologia bezela etnografia eta beste bide geiago ere bai. Guk badegu, zorionez, beste bide eder-eder bat: EUSKERA.

Euskereak badu bere barnean, geure edestia argitzeko aalmena, baldin beure esan-naiak ikusteko argirik ba'degu. Deba'ko erria artuko det azter-gai ikusi dezagun, nola paperik gabe ere, erriaren aurreko bizia ikasi diteken.

LABATAI.

Bada Deba'ko errian kale-irteera bat LABATAI izenarekin. Egun batzez Itziar'tik etorritako Olabetarrek taberna bateri ipiñi zioten izen ori. Eta or dago izena burni-bidearen geltoki aurreko enparantzan.

Don Manuel Lekuona'ren aotik daukat ikasita, euskaldunok oitura zaarra degula itz luzeak murriztekoa, iru silabetara menderatzen. Esate baterako or daukagu bere lagun D. Jose Migel Barandiaran'goa eta berak bere buruari Joxemieli esaten zion. Izketa zaarrak dira tolare torcularen ordez, algara algazararen ordez, beste izkereetatik artutako itzak aitatzekeo...

Era orretakoa da LABATAI ere: LABE-ATARItik sortutako berba. Ataria edo Atea: Labe baterako erriko irteera. Deba bale-arrantzan egiñiko erria da eta Foruak agintzen zuen bale-urdaiak urtutzeko labeak erriatik at egon bear zutela. Erri-esitik irtetzeko atea zan Labatai: labera irtetzeko ataria. Zergaitik egon bear zuten labeak erriatik kanpora? Urtutze orretan sortzen zan atsagaitik, usai txarragaitik.

* * *

Beraz, Labatai izenetik ateratzen degu labe oiek nun egon zitekeen. Labe oiek ez dute beste arrastorik Deba' n utzi; Canada eta Terranova ingumarietan bai, an utzi dituzte aztarnak y aurkitu ere aurkitu dituzte zenbait euskaldunek paraje aietan jasotako labeak; baña, ez Deba'n eta ez Euskalerriko baztarretan ez dute bat bera ere aurkitu. Euskerak, ordea, berak gorde digu bere baitan, euskal labe baten (besterik ote da?) ingurua.

Deba'ko en-ia sortu zutenean, 1343'an, orduko erri-txikien erara, eraiki zuten: eliza bat, bere enparantzarekin mutur batean, eta kale sail bat, erri-esiaren barruan. Badegu era orre-

tako marrazki bat eta marrazki orretan iru irteera ikusten dira: bat Labataikoa, beste bat Poturakoa eta irugarrena mendira, Itziar-aldera dijoana.

* * *

Labataiko irteerak Astillero kalea du berreun metrora aurrez-aurre eta gune aretan egongo ziran labeak, gaurko egunez etxeak tartean baldin ba'daude ere, are gañean jasoak. Balea urtutzeko, ordea, uretatik legorrera jaso bear zan. Orretarako bear ziran tramankuluak, labe-inguruan egongo ziran.

Gai oneri buruz badaude paperetan Lekeitio'ko berriak eta paperek esaten digutenez, elizak balearen mingañetik iru zatietatik bat eramaten zuen, baña, orren ordañez "manobrero" bat eduki bear zuen zutabe, polea eta bear ziran soka guztiakin baleak eta txalopak ondarrera ateratzeko. Deba'n ere beste orrenbeste gertatuko zan Labaitik labetarako bitarte orretan.

* * *

Labeak kana bat gora eta kana t'erdi zabal alde bakoitzeko. Goitik kaldarak sartzeko zuloa zuten. Eta kaldarak pipa t'erdi, pipa bat eta pipa erdikoak ziran. Pipa bakoitzeko 450 kilo. Azpitik, berriz, labeak zulo txikia zeukan errekiñak sartu aal izateko. Suari eusteko labearen txingarrak erabiltzen zituzten.

Balea erre aurretik, ordea, zatitu egiten zan tira luzeak atereaz burutik isatzeraiñokoak. Gerora tira oiek ogei zentimetroko zatietan ebagi. Barruko aragi guztiak ere berdin zatitu koipeak ateratzeko. Lan orretarako aiztoak bear ziran alakoak eta neurri guztietakoak.


Bein koipeak urtutzen ziranean, tina aundi batera atera. Tina au erdirarte urez beteta zegoen eta koipeak uretan igari egiten zuan eta zaborrak ondora joan. Koipea galbai batetik pasa eta barrilletan sartu merkatura botatzeko.

Erriatik kanporako merkatuak bazuen lonja bat eta an dago oraindik Astillero kalea baño aurrerago, Maxpe kalean: Maxpe deritzan etxea. Ibai-ertzean dago eta badu mollatxo bat ere bere alboan, itxasontziak inguratu eta bertatik bertara, etxetik barkura, merkagaiak errez asko pasatzeko, barrillak bezela, burniak, meatzak eta abar... Etxe orrek izan duen eginkizunik ez da gaur nabaritzen errian; baña, bertako biztanleak, gaur bertan ere, azpiko solairuari "lonja" deitzen diote, zertarako zan jakin barik.

* * *

Salgai zeuden ban-ikak lonjetan gordetzen ziran eta edozein bale-ontziak bear zituzten millatik gora. Gaur-egun ez dago errian barrillerorik; baña, orain 50 urte neronek ikusi nuen Jose Manuel Irureta, "Sagarmiña", bere etxe-aurrean barrillak egiten. Mutriku'ko Sagarmiña baserriatik jeitxi zan Deba ibaiaren ertzera eta, arostegiak besterik ez zegoen errian, arotz ikasi zuen eta barrillak egiten ere bai. Egia esan, barrillak egitea ez

ERRIAK



zan etorkizun aundiko ofizioa Jose Manuel Deba'ra eldu zanean; arosteagiak, eurak ere, bata bestearen ondoren, geienak itzi dira.

Garai batean haj, "carpinteros de ribera" zeritzenak ba'zuten lanik barkugintzan eta barrillak antolatzen. Jose Manuel'ek "Sagarminak" aurreko Deba argitzen digu bere bizitzarekin barrillak egiten diarduanean.

Gure historian badegu bi itxas-ontzien berri zeatza: bata zan "San Nicolas" 475 toneladako galeoia, Landaverde jaunak Portugaleten egiña. Bera zan armadorea ere eta berberak aukeratu zuen barkuaren kapitan Joan de Espilla debarra. 72 gizon barruan eta aien artean 6 arpoilari eta bost barrillero. 1564'aren udaberrian irten Getari'tik eta udazkenean Bilbo'ra biurtu 1.195 koipe-barrika barruen zituztela.

Orra zenbat lan barrilleruentzako. Jose Manuel Sagarminak ez zuen orrelako egunik; baña ofizioari eutsi zion orain arte. Berarekin il zan Deba ibaiaren azken barrilleroa. Bera izan da denbora aietako lekuko bat, lekuko zanik jakin barik... Baña, orrek agertzen digu joandako historiaren zenbat testigu dirautzen duela oraindik gure artean.

Bigarren bale-ontzi ezaguna, Pasaia'ko "San Joan" ontzia degu, Espilla Canada'tik etorri ondorengo laugarren urtean, Labrador'en ondoratua. Udazkena zan, etxera itzultzeko ordua, eta 1.000 barrika-koipe beteak zituen ordurako barruan. Guztjak galdu: barkua, armamentuak, koipeak, gauza guztiak... Ipar-aldeko Joannes Etchveerry (1627) jaunak osan zuena:

"Biziaren gaitik / arriskatzen dugu bizia".

Ikusten degu zer lan izaten zuten barrillak egiten eta antolatzen. Batzuek eginda eramaten zituzten; baña, geienak pusketetan, barrika bakoitzaren duelak zenbaki batekin banan-banan markatuta, gero an Terranova'n konpontzeko eta barrillak osatzeko. Lotzeko kurpillak ez ziran burnizkoak, urradarrez egiñak, baizik.

Ala agertu da Labrador'en ondoratutako San Joan ontzian. Oñati'ko artxiboan aurkitu ziran iru dokumentuetatik, atera dute nun egon dan lurperatuta, orain lareun urte ondoratutako

barkua. San Nicolas ontziak bost barrillero eraman zituan lan oietarako: bi Baiona'koak, biak maixu, bat Getari'koa, lenengo maillako ofiziala eta beste biak ez du nungoak ziran esaten: baña, bi auek izan ziran gutxien irabazi zutenak.

Deba "Sagarminak" ko arotzak barrillak egiten zituen; baña, bere ondoren ez du beste batek barrillak egiten ikasi. Eta ortxen amaitu da gizaldietan zear zetorren barril-egite aria...

Orra zenbat gauza gordetzen dituen bere barrean Labata; itzak. Edestirako oeste zenbait gauza ere bada Deba'ko errian. Bale-gantza urtutzeko labeetatik aurreraxeago, or daukagu aldatpatxo baten asieran Astillero Kalea.

ASTILLERO KALEA.

Barku-gintzan abillak eta trebeak izan dira itxas-ertzeko arotz euskaldunak: (carpinteros de ribera famatuak). Amabost eta amaseigarren gizaldietan Europa guztitik etorri o; ziran Euskalerra itxas-ontzi billa. Castro'tik as; eta Baiona arteko itxas eta iba; bazterrak astilleroz beteta zeuden eta zitekeen mota guztietako ontziak irtetzen zuten curen babesetik.

Deba'n aspaldian ez degu barku-gintzarik ikusi; artarako gizonik ere ez dago gure artean. Baña egun batez izan zirala argi erakusten digu Astillero Kaleak. Toki egokian zegoen: ordartzatik kanpo eta aldatpatxo batean, ontziak uretara botatzeko erreztasunez.

Era guztietako lanak sortzen zitun barku-gintzak: arotz bereziak, barrilleroak, basoak eta basa-gizonak zur egokiak lortzeko, karioan ibiltzeko Burni-olak sortzen ziran barku-gintzaren inguruan, ontziak bear zituzten burnikiak sortzeko. Olak, berriz ere, zura bear zuten egur-ikatsa egiteko eta ikas-kinak ugari. Oiekin batera mandoak eta gurdia, mandozaiñak eta itzaiak.

Meatzak eta garraioak... olagizonak zer esanik ez. Meatzta Bizkaia'tik ekarri o; zuten, bertan meatz-zulorik ez ba'zan.

Orra zer mundu dagoen Astillero-kalean gorderik. Gaur egun ez dago mundu ori Deba'n; baña, garai batean, bai. Badegu baita ere Errota-zar futbol-zelaia. Gaur egun jolas-tokia da, orduan berriz, maria-errota, eta aurrerago, burni-ola. Lastur auzoan daukagu Goiko-ola baserria, aldaparo ta guzti, andik beraxeago bi errota txiki alkarren parean, bata gorago bestea baiño; curen aurrean, ondoratutako Plaza-ola eta Lasturbean Leiza-ola...

Zenbat ola mendi-zulo aretan. Ugarte-mendi'ko urak (Izarraitzeko ipar-malda luzean) Ugarte baserriko alboan galtzen dira leize batean. Lastur'koak, berriz, Leiza-olako leizean. Ur oiek guztjak Sasiola'n agertzen dira aitz-artetik "Deva" ibajaren ertzean.

Sasiola aurrean, Astigarribia'ko aldetik, bada baztartxo bat "astillero" izenakin eta astillero orren barkuentzat burn; asko bear zan. Orra nundik-nora Lastur basatia burn;-olaz bete. Deba'rako ere izango ziran burni oiek.. . Zenbat izan bastarretan gure historia egiteko gai diranak!

SOKAGIN KALEA (Cordeleria).

Elizako Plaza-Zaarretik portura dijoan kaleak du Sokagin edo Cordeleria kalea izena. Bela-barkuak soka mota asko bear zituen ojal zuriak zuzentzeko eta ontzia lurrera lotzeko. Mari baten lana izaten zan sokak lotzen ikastea, korapillo era guztietakoak egitea. Itxas-ertzeko errj guztietan egoten ziran sokagintzak, egon ere badagoz oraindik zenbait portuetan. Deba onetan izena besterik ez dago; garai batean bazegoela, ordea, kale izen orrek erakusten digu.

PORTU - KALEA.

Asierako erriaren erdian, geroagoko Plaza-berrian asita, berutz, ortxen dago Portu-kalea beste plaza batera, Donostia'tik Bilbo'ra dijoan bide zabalera eta tren-bideraño. Orain eun urte or zegoen portua, baña, tren-bidea (FEVE) egiteko bete zuten eta geltidu zan Deba porturik gabe. Gaurko Portu-kalea plaza batetik bestera dijoan kalea da. Izenak, ordea, dirau: Portu-kale.

Orduko "Ferrocarriles Vascongados" elkarreak agindu zuen, portua egingo zuela berriatik. Ez zuen egin. Joan dan urtean, 1998, asi ziran euskal agintariek portutxo bat sortzen, lengoen inguruan, eta 1999-09 jl onetan eman zaio amaiera lanari. Badegu portutxoa. Ez, ordea. Portu-kalean.

* * *

Deba'ko barra ("Itxasoan laño dago / Baiona'ko barraraiño") beti izan da gaiztoa eta jende asko itto da bere olatuetan orain eta lenago. Alaz ere erromatarren garaikoa zan "Deva" ibaiko kaia eta bertan zegoen Tritium Tuboricum Melo eta Ptolomeo idazle erromatarrek ziotenez.

Itxas-ertzean beste iru erri aitatzen dituzte Getaria, Donosti-Pasai eta Oyarzun. Oyarzun (Oearso) zillarrezko minak zeudelako: Donosti-Pasai eta Getari portu seguruak zirelako; baña, Tritium Tuboricum zergaitik? Guztiek esaten dute Mutriku dala edo Astigarribia mutrikuarra. An, ordea, ez dago porto segururik, ez meatzik. Astigarribia aurrean dagoena ura da ugari.

Erromatarrek egunez bakarrik ibiltzen ziran itxasoan eta gauzez kaietara bildu curen barkuak. Deba'ko kaia beti izan da arriskutsua eta segurantzirik gabekoa. Beraz, portutarako ez zuen ainbeste balio; baña erreka beste aldetik eta ez Astigarribia'tik, ura dago, aitzen artetik erreka sortzen dana.

Eta nai dan beste ur artzeko ez dago ontzitik jetxi bearrik, erreka ematen bait du iturri ugariak. "Tritium Tuboricum Deva erreka ikutzen du" dio erromatar idazleak eta Deva erreka dator zuzenean ur ugaria. Izarraitz menditik beera Lastur'era datozten urak, Lastur'en galtzen dira leizetan barrena eta gero Sasiola'n, Astigarribia aurrean, agertzen dira aitz a r etik...

Orra erromatar ontzi eta gudarostearantz arrazoi berezia: Tritium Tuboricum'go ur ugariak. Euren bideetan ur-tokiak markatzen dituzte arreta bereziaz. Tritium Tuboricum papere-tan ematen digute antxiñako idazleek, zer dan argitu barjk; baña, inguru oietan daude «astillero" eta "mollatxua" izenak Astigarribia'ko aldean eta Lastur'en an daude Goiko-ola, Plaza-ola. Leiza-ola, guztiok alkarrekin. Oiek ez daude papere-tan emanak gauzaetan, baizik, arkeolojijan baizik... Gure edes-tia egiten dote paperik gabe.

ONDARTZA-KALEA.

Ondartza-kalea da baña ondarra urrutian dago. Kale orretan Donostia'tik Bilbo'ra dijoan bide zabala dago. Aldame-nean, berriz, itxasoruntz, Calbeton'en zumardi luze zabala. Itxasorago oraindik, etxe mordoxka bat eta akabera, orra or azkenik Deba'ko ondartza. Nun gelditu da Ondartza Kalea? Bertan ondarrik ez dago zoru-azpitik ez ba'da; baña, izenak or gorde dute garai bateko lekuko, naiz-eta ondartzak aspaldian andik aldendu.

BASTIÑOIA.

Arri-esi bulartsua, kaiaren babesa: "bulebard" ere esan oi diote... Erriko kaleak erritik irtetzean an zegoen bastiñoia. Gaur eguneko Ondartza-kalean. Ez arri-esirik, ez ondartzarik: Calbeton'en Zumardia, baizik. Ortik portura egongo zan bastiñoia. Gaur urrutiko kale baterj ipiñi diote Bastiñuixa -kalea. Izen ori berritan ipiñia da; baña. erriaren aotan ez zan galdu Bastiñoi itza. Euskeraz ari zirala esaten zuten Bastiñoia. Gaur egun ez dago ez bastiñoirik, ez ondarrik Ondartza kalean, ez porturik Portu-kalean... Gure izkera euskaldunak gorde ditu izen guztiak bere sabelean. Zenbaitetan, historia egiteko, ez da paperik bear.

MAXPE-KALEA.

Maxpe-kalea Maxpe etxerako bidea da. Ibai-ertzean dago, Astillero-kalea baño ibaiean aurrerago. Uraren gañean ereiki-ta dago eta badu bere mollatxoa ere. Bertako bizilagunek erritik kanpora bizi dira eta, udaran bakarrik, etortzen dira errira. Azpiko solairuari "lonja" izenakin deitzen diote etxe-barruan dabilzenezan... Ate aundi bat badu beko solairutik ibaiera, mollatxua tartean dala.

Aldi batean ontziak gerturatzeko zan eta lonjatik ontzi-barrura, ala alderantziz, gauzak batetik bestera pasatzeko zan mollatxua. Deba'ko portuan bearrezkoak ziran lonja auk. Bertara ekartzen zituzten Labatai'ko bale-koipeak, burni-ole-tako burnizkiak, oletarako meatza eta merkataritzako gai guz-tiak. Bertan gordetzen ziran saldo arteko guztian.

Nagusi bakoitzak bazuen bere gauzen prezioa eta prezio artara makurtu bear zuten erosleak. Deba'ko kaian bezela Eus-kalerri'ko porto guztietan ikusten ziran Europa osoko merka-tarj ontziak erosi eta saltzeko... Gantzak eta burnizkiekin batera saltzen ziran Kastilla aldeko artilleak ere.

On-etarako berealdiko askatasuna zegoen gure anean. Badago parroko artxiboan Londres'en egiñiko erosketa baten bost agiri: Barku bateko kapitanak Londres'en erosi, ordaindu eta elizarako ekarri zuen "pianoforte" bat. Kapitanak eskubide guztiak zeuzkan edonundik edozer ekartzeko.

Maxpe izan zan lonja nagusi bat; baña, ez bakarra. Aurre-rarxeago bada Loja-berri baserrja, gaur lonjarik ez duenak: baña, garai batean Lonja Berria izana. Dana dala, or daude ize-nak errenkadan, gure edestien ezaugarri.

ANES ARRINDA
.Deba'n Irailak 30.
Urtea 1.999.

ON JUAN KARLOS ERREGEARI ZOR ZAION ERASPENEZ (1)

Aspaldi nengoen, On Juan Karlos, zurekin mintzalditxo paketsu bat izen naiean. Direla egun batzuk Gaztelerriko izkuntzari-buruz zerbait txit arrigarri telebistaz eta irratiz esan zenue-ner gero bait nengoa zuri itzegitekotan.

Par egin nuen esaldi ura entzun nintzunean. Itunki, bai; baiña par egin nuen. Negar egiteak ez bait zuen balio.

"Bixente, gizon onek zer dion ez zekik, eta itzezin bearko duk berekin", esan nuen nere-baitan. Baiña, zu eta ni beño askoz garrantzi aundiagokoa den beste zerbaitek neunken ardurapeturik orduan, eta ez nuen beste edozer gauzaz mintzatzen asteko, ez betarik, ez gogorik.

Gu biok bello garrantzi geiagokoa den zerbait ori, pakea zen. ZURE eta nere Euskalerrri MAITE ontako pakea!

"ZURE" eta "MAITE" oiek, On Juan Karlos, ez dire oartzeko orrela, izki nagusiz, idatziak izen, ongi nafta baizik, zuk eta nik, naiz berdiña izen ez, bai bait dugu arrazoi bereizia Euskalerrri au arras maitatu bear izeteko.

Nik, Euskalduna izetea.

Zuk, beste iñon beño leenago, Borboiak, errege, aurrena, Euskalerrrian gertatu izetea.

¿Bai al ziñakizun ori?

Ezetz esango nuke nik. Printzipe ziñela Franko'k jarrita irakasle bereizia izen zenuen praille Domingotar arek ez bait zizun seguruaski orrelakorik erakutsi. Oso maitasun urria bait zion arek gure Euskalerrri gaixo oni.

Baiñan ori, On Juan Karlos, nik esan dizudan ori, egia da. Zuek, Borboitarrok, Beste iñongo errege beño leenago, EUSKALDUNEN ERREGE izen ziñeten. Izenez euskalduntalde baten Errege, —ordurako egiña zen bá Fernando "Katolikoa"ren LAPURRETA—, baiñan LEGEZ ETA ESKUBIDE ZUZENEZ, Naparroa osoko euskaldun guztien errege.

Ordura arte, Borboitarrak Frantzi'ren erdian zegoan dukate-rri baten Jaun izen ziñeten.

Duke aietako bat, On Juan Karlos, Antonio izeneko duke bat, Naparroa'ko III Yone Labrit'ekin ezkondu zen. Eta ezkontza orren bidez, Errege biurtu zen. Izen utsezko errege, ordea. Agintzeko almenik gabea. Emazte gozoa bait zuen gañera III Yone, bere erreñuan beste iñori agintzen uzteko!

Antonio orrek eta 111 Yone'k Enrike izenez bataiatu zuten beren semea.

Eta Enrike Borbon Labrit gazte ori bai, benetako erregea izen zen ori, bere ama III Yone 1572'an il zen ezkerro. Egiazko errege! Mundu osoan, edestia-zear, lenen errege Borboia!!! Ai baiña, ¿nongo erregea? Naparroa'ko erregea! Enrike izeneko irugarren Erregea Naparroa'n: Naparroa'ko III Enrike.

Esan dugu, naiz legez Naparroa guztiko errege izen, agintez Benaparro'koa—eta Benaparroa'rekin alkaturik zegoan Bearno'koa— bakarriz izen zela, Fernando "Katolikoak" Ego-Naparroa indarrez arrapatu zuen ezkerro emen Naparroa'ren egoan IV Felipe, (Españi'ko II'a), bait zen errege, eta 1598'z gero, V' a, (Españi'ko III'a). Ainzuzen azkeneko onek, oraindik printzipe zela, 1592'an jarri zuen bere burua, ziñ-egiñez, Naparroa'ko Lege Zarraren menpean. Besteak, II arrek, on egin zuen ori bera. Ego-Naparroa'k ere, bere Lege Zarraren araupean, Laterri yare jarraitzen bait zuan.

Ipar-Naparroa'n, On Juan Karlos, beste bat zen erregea:

zure kastakoa: III Enrike. Jakiña, Frantzi'n ere beste bat zen errege. Au ere Enrike, izenez, eta ainzuzen au ere III'a. Frantzi'ko III Enrike. Baiñan ez Borboitarra Naparroa'koa bezala, Valoistarra baizik.

Eta gauzak gutxiena uste den bezala gertatzen bait dira, Enrike Valoistar ori Praille Domingotar batek il zuenean, aren aide zen Naparroa'ko III Enrike Borboitarra izen zen Frantzi'ko Errege izendatua: Frantzi'ko IV Enrike.

Baiña Naparroa'ko Errege izetetz utzi gabe: Naparroa'ko III Enrike izeten jarraituz. Berak, bere itzez, esan zuen bezala, Naparroa'ren YARETASUNA, ots, "independentzia" ezereztu gabe. Ipar-Naparroa'ren alkartasuna, Ego-Naparroa'rena ta emengo beste iru Eusko-Laterriena bezala Erregearekin izan bait zen egiña, ez Frantzi'ko edo Españi'ko Laterriekin:

An, iparrean, ERREGA BAT baiñan LATERRIAK BI eta biak LATERRI YAREAK; Frantzi eta Naparroa. Emen, egoan, berdin: ERREGA BAT baiñan LATERRIAK BOST eta bostak LATERRI YAREAK: Españi, Naparroa, Araba, Bizkai ta Gipuzkoa.

Badakit, Juan Karlos, praille domingotar arrek ez zizula orrelakorik erakutsi, eta zure inguruan dabilten txori beltz moko luze okerreko oiek ere ez dizutela orrelakorik esango, baiñan ¿ori duk egia, mutiko!!

Beraz, Juan Karlos, XVIII mendeko zure aitona zaar-zaar ura, aurrena, 1572'tik 1589'ra, AMAZAZPI urtez, soilki Naparroa'ko Errege izen zen: "Enrikus 111 Dei Gratia Rex Nabarro-rum". Lenen Errege Borboia. Eta arrezkerro, XVI Luis'i lepoa moztu zioten arte orixe izengo da Frantzi'ko e rege guztien aurkezkerro, ots, presentazioa: "Roy de la France et de la Navarre".

Euskaldunen Erregea. EUSKALDUN UTSEN erregea, Juan Karlos. Naparroa artan, ots, Benaparroa'n, orduan ez bait zuen iñork euskera besterik itzegiten.

Orrek, On Juan Karlos, zurekin gaur soilki euskerari buruz itzezin nai nuela, dakarkit burura. Gure Euskera, Juan Karlos, zure ta nere euskera au, Españi'ko Jaurlaritza danek eta Jaurle guztiek okerki eta izkutuko baiña egiazko gorrotoz ikusia izan bait da.

Ez bait da egia, zuk, telebistaz eta irratiz irakurri zenuen ura: Gaztelerriko izkuntza ez dela beñere, indarrez iñora sartua izen. Galde egiezu zure aolki.ilariei, ea noizbait, **eskoletako eraztunaz**, zerbait entzun duten.

Ortaz nai nuke bá, gaur zortzi zurekin, adiskidetasunean mintzatu.

Latiegi'tar Bixente. 945 22 00 50
Euskerazaintzakoa

(1) Idazlan au Iruña'ko "Diario de Navarra"n izan da argitaratua. Orregaitik Naparroa'ko euskeraz doa. Onen atzetik beste bi argitaratu ziran izparringi ortan Juan Karlos Borboia'ri zuzendua. Bidaliko dizkiot Olazar'tar Martin gure zuzendari jaun maiteari, egokiak iduritzen ba'zaizkio argitaratu ditzan. Nik, norbaitek zerbait itaundu edo zerbait esan gura ba'dit nora deitu jakin dezan, idazki guztietan agertzen dot riere urrutizkiñaren zenbakia.

ZAZPI EDER-LAN ARRIGARRIAK (I)

Munduan gauza eder asko daukaguz, batzuk eza-gunak, beste batzuk ez ainbeste, batzuk antxiñakoak beste batzuk oraintsukoak, batzuk izadiak berak sortuak, beste batzuk gizonaren eskuz landuak, izanak eta diranak.

Gai oneri buruz idatz-lan batzuk argitaratuko doguz gure aldizkari onetan, eta, asteko, zazpi ederland arrigarriak azalduko doguz. Onein izena sarritan entzun dogu. "Las siete maravillas". Ikusi dagigun gaur zertzuk eta zeintzuk diran. Urrengo zenbakie-tan beste ederland batzuk aitatuko doguz.

>: >: >:

1^a Ejiptoko txunturrak (piramideak).

Arabiarren esaldia da au: Denporeak danaren gaiñetik irauten dau baiña piramideak edo txunturrak denporearen gaiñetik diraue.

4500 urte dira arrizko txunturrak aundienak egin zirala: Gizeh, Cheops, Chefren eta Mizerinoren arri-txunturrak.

Edestilarien aita dan Herodotok damoskuz euren barriak, Kristoren aurretik 450n. urtean: lenengo bide zabal bat egin zan, Libia'ko aitxetatik Nilo ibaira arriak ekarteko. 10 urtean egin zan ori eta gero beste 20 urte bear izan ziran txunturra, Cheopsena egiteko. 100.000 gizonek, diño berak, egin eben lan urtean iru illebetean, ille oneitan Nilo ibaiaren urak zabaldu eta luginlana galazoten ebela-ko. Milloi bi baiño geiago izan ziran ekarrirako kareatzezko totxoak, orretarako bear ziran traman-kuluak (eurberak, lurrazal labanduak, palankak eta alperrak) erabillita. 120 pezeta bear izan ziran jana-riak erosteko (arbiak, kipulak eta berakatzak).

Baiña Herodoto'k dakazen jakingarri orreik ez dirala sinistekoak diño batzuk: 100.000 langille orretan ibiltea eziña da eta zortzi milla inguru izan zeitekezan.

2^a Semiramisen baratz ezkegiak.

Nabukodonosoren agindua izan zan bere jaure-giaren inguruan arrizko mendiak egin eta an zuga-tzak sartzea eta bere emazteak agindu eban jaiote-rrian ikusitakoen antzeko baratzak sartzea. Semira-mis da au, emakume onek jainkozko almenak ei

eukazan. Baiña ez zan Nabukodonosoren emaztea. Geroko amesak dira orreik.

Baratz oneik mendiaren mailletan landatuta ego-zan eta basa-mortu baten barruan egozan tez, bene-tan arrigarriak ziran. Eurak ureztatzeke bideak be artu ebazan erregeak.

3^a Artemisaren jauretzea (Efeson).

Jauretze edo tenplu onek 141 m luze eta 73 m zabal eukazan eta 127 age, oneitatik 36 apainduak.

Jakingarri oneik oraintsu egin diran billaketak ziurtatu dabez.

356n. urtean, bere burua ospetsu biurtzeke gura-riak eraginda, Horostrato'k erre egin eban jauretze au baiña Dinokratesek barriro egin eban lengoaren leku berean. Kristoren osteko 262n. urtean godoak apurtu eben eta ziporrek estaldu ebazan ondakiñak.

4^a Halikarnasoko mausoleoa.

Persitarren erregegaia zan Mausolo eta onek K.A. 360n. urtean illobi bat egin eban beronen ospe-rako. Orretarako irudigille ta etxegillerik onenak billatu ebazan. Zori txarrez amaitu baiño lenago il zan bera.

Mausoleoa be ondatu zan eta ezin izan da barriro egin. Arriak artu ebezan andik Halikarnasoko San Pedro etxe sendoa egiteko. Ez eben ori egin eben San Juanen saldunak ezer be itzi aitzean geratzen zan zuloa baiño.

Barruan egoan illobiak 33x39 m. eukazan eta goiorea 50 m. Urrindik ikusteko lakoa. Orren gai-ñean, bost mailla igonda jauretzea egoan, inguruan ageak eta gaiñean mailladun teillatua eukala. Eta gaiñe-gaiñean lau zaldiko burdia benetan aundia.

5^a Rodasko kolosoa.

Rodasen, orduko idazleak diñoenez, 3.000 irudi egozan eta oneitatik 100 ziran kolosoak, aundi-aun-diak. Oneitariko bat da Helios edo Eguzki Jainkoari eskiñia zan burdiñezko irudi tzarra. Onen goiorea 40 m. ingurukoa ei zan eta astutasuna 70 tm. Irudiaren anak zabaldua kaiaren gaiñean egozan eta azpitik sartzan ziran itxas-ontziak. Irudiak eskuan zuzia eukan.

K.A. IV gizaldian guda baten ondoren Rodasta-rrak erabagi au artu ei eben: arerioen guda-traman-kuluak urtu eta Jainko babeslearen-irudia egin.



Rodasko kolosoa kaira sarrera oinpean

Chares izan zan irudigillea eta amabi urtetan egin eban lana. 50 urte egin ebazan irudiak kaiaren gainean eta lur-ikara batek bota eban itxasora. Oinien ondakiñak baiño ez dira geratzen.

653n. urtean saldu eutsezan irudiaren ondakiñak Edesakoa zan salerosle judatar bateri eta onek 900 gabelu bete ebazan ondakin orreikaz. Orrelan ez da geratu ezelako gomutakirik irudia zelakoa zan erakusteko.

Irudia benetan bildurgarria ei zan, lotsea sartzeko egokia, naskagarria eta guztiz laidogarria.

6^a Alexandriako itxas-argia.

K.A. 300n. urce inguruan egiña zan eta egillea Gnido ko Sostratos.

Barrena lautua eukan torrea zan eta goierea 100 m.koa. Gain-gaiñean gabaz egurrez eta erretxiñaz egindako sua eukan. 70 milloi pezeta kosta zan egi-tea.

Oiñarriak ipinteko orduan Sostratosek bere arazoak izan ebazan, oiñarri ori itxaspean egoalako eta arria itxasoko urak txautu egiten dau. Azkenean oiñarri ori leiarrezkoa egin eban.

1375n. urtean lur-ikara batek apurtu ebazan ondakiñak eta gaur ez dago ezer.

Pharos ipiñi eutsoen izena, itxas-argia egoan erdi-ugarteak eukan izena bera. Izenak jarraitzen dau, baiña orain artean ez da aurkitu ezelako aztarrenik.

7^a Zeusen irudia.

Au Olinpiako jauretxean egoan eta K.A. 456n. urtean amaitua zan, artzuriz eta ebanoz egiña, urrez eta arri bitxiz ondo apaindua eta beronen goierea 15mkoa zan. Zori txarrekoa ei zan irudi ori ikusi ez ebana.

Fidias izan zan egillea eta irudiak bekoki illuna eukan eta illuntasun ori aundiago biurtzen zanean, Olinpo mendi osoak dar-dar egiten ebala diñoegreziatarrak.

>: >: >:

Orra or, labur-labur, zazpi eder-lan arrigarriak edo "las siete maravillas". Antxiñako gizonak egindako eder-lanak, baiña zori txarrez guztiak ondatuak. Gure aldietan be egingo dira eder-lanak eta gure ostekoak goratuko dabez.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

EUSKAL ASTEA (BILBAO'KO UDALAREN LAGUNTZAZ)

BILBAO
UDAL
AYUNTAMIENTO
LAGUNTZAILLE

Euskerazaleak Alkarteak, urtero legez, Euskal-Astea eratzen dau. Ona emen gaiak eta egunak:

Tokia: Euskerazaleak'en egoitza. Colon de Larreategi 14, 2^a, eskoia.

Egunak: Azillaren 26'tik 30'ra.

Ordua: 8 retan.

Gaiak: 26, astelena: Bertsolaritza. Legarreta Asier.

27, asteartea? Globalizaziñoa. Atutxa Paul.

28, Egusatena: Amesen ildotik. Zubiri Iñaki.

29, Eguena, Lege zarraren berezitasunak. Olazar Martin.

30, Orixer'ren esukaldunak. Murua Jose Mari

EUSKERAZALEAK

POLITIKAREN MERKATUAN

POLITIKAREN MERKATUAN

Gaztelera ere euskaldunon ondare'?

Gure Erria luirez txiki izanarren, beti izan da nazio. Ez gaur sentitzen dan moduko nazio-zentzu politikoarekin. Baiñan, itz edo adiera onek politikazko zentzua artu zuanean, etzegoen esaterik (gaztelarentzat, jakiña) gure Erria nazi() danik. Au joan dan gizaldiko gauza izan zan.

Euskaldunak -edo euskal erkiok- Madril'eko erregea gure agirizko buru egiña genduan (ez biziera zibillean eskuartzeko, ordea) arekin zeukat beren arremenak, zoritxarrez ez ordea erkiok alkarrekin arremen anaikorrik beren artean, funtsezkoa baintzat. Bakoitza bere txilborrari begira bizi zan, bestek ez ba'leudekan.

Iñoiz erregeak edota onen ordezkariak zerbait aldatu nau-ik gure arazo zibilletan eskuartzan zutenean, gure Erria etzan aren agindu ta esanetara etorkor makurtzen. Ba'zekien buruz-buru jarkirik gure betiko jokabidearen aurka zetozen asmo oker oiek lurreratuz. Onela, eskualdeak norbere askatasun eta eustapenaren alde al zuten zuzenik saiaten ziran eta burrukatzen. Gauzak orrela, Euskalerrria'k. gure kaltean zetorren politikagintza berriari jara aundirik emateke, lasai eta zuur ziraun bere bidean. geiegizko kezkarik gabe ta bere lur-orubea ezker-eskubira edatzeko batere irrika ta asmorik gabe.

Bertan, gure En7a'n alegia, ba'ziran ordea Madril'eko gorte dotoreko bitzta oso erakargari insten zutenak (aundizki ta aundiustezko maillekoak) aruntz begira ezezki, emengo etxaldea utzi ta Euskalerrri'ko politika ta bizi-giro arrmta gutxiagotzat artuz, asimilapen osora soin-ta-muin prestatzen ziranak.

XVIII'gn. gizaldian eta XIX'garrenaren asieran, ideia guztien billakaera eragin aundikoa izan genduan mundu zibilizatuan. Onek, gizarte-antolakuntzan batez ere, aldaketa politiku zoliak sortarazi zituan. Baita gure Erna'n ere. Ideia berri oiek Estaduen eraberritzea gertutu ziguten. Gure Erria'k osorik artu zigun billakaera eta estadu-berritzeen kaska, gatazkak sortaraziz eta gure axaleko anaiarte-bitzta politikua apurtuz. Madril'ek onela iriki zigun arraildura, egiazko ataka kaltegarria euskal biotz-esian gu erdalduntzeko eta espagnolizatzeke joranez.

Gaztelar Estadu berri-indartsuak apurka-apurka gure betiko eta sortzetiko foru-erakunde politikua, itz batez gure jareintza. murrizteari ekin zion, artarako eskubiderik gabe. Etzuan ez erabat nai izan gure erakunde jarei onen deuseztapen edo suntsiketa. Alderantziz, on-itxurapen lege-gezurtiz, bein eta berriz errepikatuz, foru-erakundeen aldeko agertzen zala esan zitekean.

Gure Erial zoritxarrez, etzizun erdaldunen joera oni jarkiko zion bear zuan bezelako buruzagi politikurik sortu. Moises euskaldunik etzan Euzkadi'n azaldu. Eta gure aberrian gainberarik tamalgarriena asi zan.

Egunean-egunean, gaztelar laterriak maltzurki, sortzez eta gizaldien joanarian gure-gureak eta guztiz bereziak ziran arazoetan eskuartzeari ekin zion. Asimilaketa politikuekin Mera beste kidekapen askoz sendoagoa ta sakonagoa isladatzen zan: kulturakikoa.

Gaztelera egin zuan inperioaren izkuntza. Eta euskera, gure enuz, danerako baztatu. Emen Euskalerrria 'n ain garrantzizkoa izan zitekeanik uste gabe, gure aldetiko protesta-zaratarik gabe, gobemu-zentralak bere-berea egin zuan guretzat benetan kaltegarri

izango zitzaigun eziketa-arazoa aurrera eramatea. Eskolak, berak eraiki ta mantentzen bait-zituan. Eta maixuak, erdaldunak geiengeienak, izendatu.

Gure politika-gidatzailleak Madril'eko esanetara jan-irik, ara joan oi ziran gure arazo askotxoan soluzio billa.

Eskolatzeko biderik etzegoan Euskalerrria'n. Eta Unibertsitatea da, dakigunez, kultura sakondu-zabaltzeko eta izkuntzak lantzeko biderik egokiena, agian gorengoena eta garrantzitsuena. Baiñan Madril'entzat eta erdaldunentzat euskalduna mendizuloko basakume danez eta erderaz moldatu eziñekoa, ez da kulturaduna, ez du kulturarik. Kultura gaztelania bidez soilki garatu daiteke. Beraz euskaldunak ez du Unibertsitaterik bear. Orra ba erdaldunen arrazoipide gizatsu ta aurrerakoa! Madril'ek (ontan zegoalarik), euskal unibertsitateari ukorik nabarmena eman zion. Etzuan Unibertsitaterik eraiki nai. Onek euskaldun ikaslea derriorez Euskalerrri'tik aldegin-erazi eta euskera (kamuts, zail kanpotarren iritziz) aztu ta baztartzera eramaten zuan. Ta ikaslea orra erdaldun biurtua. Ta ondoriora auxe: izkuntz-kolore bakarreko Estadia. Batasun osoa lortua!

Eta Unibertsitateik ezaz gure euskal gaztediak, etxean etzualako, kanpora, atzerrira joatera beartzen zuan politikak. Eta erdal unibertsitatera joan oi ziran gure jakin-naitsuak norbere etxean lan egiteko bear zuten ikas-tituluaeren billa.

Gure Erri xotilla, barru-barrutik foru-zale zan, baiñan craso erdalzaleari jarkitzeko, gidaririk gabe, etzizun nai bezelako giarrik izan, ez agertzen. Darla etsipena zan, zabarkeria, adostasunik ajolagabetsuena. II ala biziko zan auzi larri onek erio-aurpegia zekarren.

Euskeraren egoera, nun-naitik begiratuta, etzan goxo ta errexa. Landugabea, gutxietsia, arbuaiatua. Errua, kanpokoen eta etxekeen. Gure arteko jauntxoak geiegi berdintzen bait-ziran erdaldunekin.

Gaztelera, beraz, esan ote diteke gure ondare danik, euskeraren kide. pareko? Berezko billakaera ta sorrera lasaiaren bitartez, euskaldun guztion atsegiñez sortu ta biotzeratu izan ba'zitzaigun, gurea onelaxe egin ba'genduan, bai! Baiñan etzan olakorik izan. Oso alderantziz baiño. Gogorrean sartu ta zabaldu zitzaigun, estaduen terrorismuz eskolan makilka ta zigorka, euskal kultura ezeztatu nai zapalduz, ujolean lanbilla etortnakoekin, euskaltzaletasun-bideak itoz, txapelokerren jokera gaiztoz, elizaren zabarkeriz sarri eta goitiko lege aurkariz ezarri zitzaigunez, auxe esan bear dugu: gaztelaera ez da gure ondare! Ez genduan eta ez dugu erdera gurea egin, Madril'en eragin zitalez giza-eskubideak zapalduz gainerratu zaigulako.

Izkuntzaren garrantziaz dana esanik dago eta ba'dakigu, len eta orai ere, estadu-izkuntzak besterik ez dirala aintzat artzen. Frantzia'k berak ondo zekien ori. Orregatik, 1.791'gn. urtean, nazionortasuna eta beste naziokoeekin aldea nabarmerazteko, izkuntza ofizial ta bakartzat frantzesaz ezani zuan, bertako beste izkuntza gutxituak danaerako langa jarriz, atek itxiz.

Frantzi'ko jaurlaritzak. ustez Europa'ko estadurik demokratikuen izanik au egin ba'digu, gu gobernu-legeak gure alele jarri naiean burrukan gabiltz. Legea ez da noski guretzat euskeraren auspoa, baiñan eundaka urtez kili-kolo ibillia dan euskal mintzaira zara makulu legalen bearrean dago mundu zoro ontan bizirauteko.

OSINTXU'K

GIZAKIAREN EDESTIA (I)

BILLAKETA

Juan Luis Arsuaga, euskalduna, billatzaileetarikoa bat, eta nagusia dala, oraintsu egin dabe arlo orretako lan eder bat.

Billaketa au egiteko tokia Atapuerka izan da. Toki au oraintsura arte Euskalerrria izan da eta orregaitik be billaketa-lan onek ba-dauka zer-ikusia gugaz.

Juan Luis Arsuaga'k (Ignazio Martinez bere lagunagaz batera) liburu bat argitaratu dan "La especie elegida" idazpuruaz eta azpian au diñoala: "Gizakiak izan dauan aurrerapen luzca". Eta ni gai onek beti arduratu nau. Orregaitik jdatzi nai dodaz Jan batzuk gure aldizkari onetan irakurleentzat.

Liburu polit au ez da zientzi utsezko liburua. Olakoak irakurteko aspergarriak izaten dira. Baiña liburu au zientziaren zabaltzerako edo bulgarizatzerako liburua da, naiz ta noizean bein arlo orretara sartu-bakoentzat lan atsegiña izan ez.

Zati bi ditu liburu onek: "Afrika'ren seme-alabak" eta "bizi-leku barri baten billa". Ez deritxazue, geiago bari, gai jakingarri baten aurrean gagozela? Goazen ba ur sakonetarra:

EDESTI-AURREA

Jakituria-aren edestian gizon batzuk aurkitzen doguz jakinbidea; bira osoa emon dautsoenak, esaterako Galileo edo Deskartes... Oneitariko bat dogu, zalantza barik, Darwin. Onen aurretik, eta Biblia be orrelan ulertzen zalako, gizakia Jaungoikoak lurragaz egin ebala sinisten eben, baiña Darwin'ek, billaketa aundia egin ondoren, gizakia aurreko beste abere bizi baten ondorengoa dala agertu eban. Eta zer erantzun eutsun Eleizeak? Zori txarrez bera ez zan sinistaduna eta Eleizeak be ez eban sinistu bere irakatsia. Lenengoz susmo ori onartzen dauan agiria XII Pio'ren Humani Generis idazkia da eta au diño: "Iñoz ziurtatuko ba'litz gizakia beste bizidun batetik egiña dala, Eleizearen aldetik ez legoke eragozpenik ori onartzeko".

Eta kristiñauak zer? Oraindiño asko dira tximinoi baragarrien ondorengo dirala ezelan be onartzen ez dabenak. Bide onetan lan ederra egin eban Teilhar de Chardin josulagunak.

Gizakiaren edestia asj baiño lenago kondaira (leienda) daukagu, erdi-egia ta erdi-asmatua izaten dan jakituria: Biziak lurtean 3.500.000 urte daroaz. Lenengo bizi sortu zan uraren azpian eta bizi orrek landaretara eta zentzundunetara jo eban. Azkenengo onetatik aurrerapenaren bidez etorri dira tximinoiak eta oneitatik gizakia, onelan:

Basobaltzetik iges eginda Afrika'ko sabanan edo landetan bizi zan Lucy eritxon gure aurretikoa, orain iru milloj urte inguru dirala. Gure Lucy'k beste primategak egin ez ebezan aurrerapenak egin ebazan, batez be oneik: Bera metro batekoa zan eta 30 k'koa bere astuna. Txikia zan areriogaj geigo egiteko, baiña buruko zuurtasunean aurrera geiago egin eban. Besteak basobaltzean geratu ziran baiña berak andik iges egin eban, oin biren gaignean ibiltzen ikasi eban eta

eskuakaz bere burua zaintzen eban, arriak botata edo... lanabesak egiten ikasi eban, sua be asmatu eban. Or dauka gu ba abereki barri bat gizaki biurtzen. Kristiñauok esango genduke or dabillega Egillea gizakiaren arimea edo illezintasuna sortzen, egiten.

Ori da kondaira edo leienda lez oraintsu irakasten izan dana, baiña billatzaileak dan ori ziurtatu e,-in bear dan. Zelako poza ori ziurtatzen dauan zerbait ondakiñetan aurkitzen danean, Atapuerka'n esaterako, eta zelako poza aurkitze orreik beste askorentzat zabaltzen diranean, esaterako liburu orretan Arsuaga'tar Juan Luis'ek.

OIÑARRIAK

Darwin jakintsu aundiak eta bere lagunak, aurrerapenaren bidean oiñarri batzuk jarri dabez. Artu daiguzan kontuan: "Bear-izanak gorputz-atal barriak sortzen dauz" (Or jirafearen sama luzea jatekoa billatzeko), (or zugatzetan ebillen gure aurrekoak erkerora (erpuua) alborantza eukitea, zugatz-abarrai oratzeko). Ortik dator gure erkerora alborantza, beste primategak atz-amarrak bardifiñak daukez. (Guk be bai oiñetan).

Beste oiñarri bat, "selección natural" deritxoenak, au diño: Abere-mota bakoitxaren barruan makalenak galdu egiten dira eta sendoenak jarraitzen dabe, orrelan mota ori sendotu egiten da.

Ez da aiztu bear aldakauntza apurka-apurka eta millak urteetan egiten dirala, baiña noizean bein jauzi aundiak be izaten dirala. Gaignera aldakuntzak txarrerako be izaten dira eta bide ori artzen daben motak galdu egiten dira, eta, azkenez, aurrerapen au ez dala gaurko gizakiaz amaitzen, beste "gizaki" bat etorriko da. (Au ete zan "nazien" "superhombre" edo zigagoi ames utsezkoa?).

EDESTIA

Primate-mota batzuk oneik dira: Estrepsirinoak (Lori eta potoak).

Haplomirinoak: Lemurak, indriak, aye-ayeak, tarseoak, katarinoak (onein artean gutarrak) eta patirinoak.

Mundu zarreko primategak: makakoak, papionak, mandrilak, genonak, koloboak, langurak... Guztj oneik hominoideak, antropomorfoak edo antropoideak dira.

Afrika'n daukaguzan Antropomorfoak: Txinpanze (gugandik ur), gorilak, orangutanak, giboikiak (gugandik urrin).

Eta Txinpanze'en artean pigmeoak be sartzen dira.

Eta gutarrak.

Afrika'ko iru mota oneik aurretiko bat dauke, ez dakigu zein dan. Baiña goazen gugandik asita atzerantza: Gizakia hominoidea, katarinoak, simioak, haplorrinoak, primategak ugazdunak edo mamiferoak, bizkardunak.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAIERAZ

Bizkaieraz idazten daben askok, gure euskalkiaren aditz, esakera ta itz askorik ez dakie eta, gure errietan aurrez erabilten doguzan berba askoren orde, erdal jatorrizkoak edo gipuzkerazkoak artu daro. Esakerakaz be bardin jazoten da. Bizkaieraz idazten dabenen lanak, ulergatxak izaten dira, sarritan, euskal-senik ez daukie-lako.

Zuzendu bearreko akats batzuk aittetu bear dadaz: be ta bere.

Bizkai'ko euskeraz aurrez erabilten doguzan itz oneik askok baztertu egiten dauz eta, onein orde aldamenekoen ere artu. Zer dala-ta alperreko aldaketa au? Esate baterako, "Joseba bere bere amagaz joan da" esan ba'dagigu, guk, euskeraz beti bizi izan garean euskaldunok, ondo ulertzen dogu esakera au. bere biak oguzkera bardiñaz oguzten ez doguzlako: Lenengoa, leun-leun oguzten dogu eta bigarrena, azkenengo e luzetxuago dala. Baia euskaldun jator jatorra ez daitenak ez dauz nabaituten itzon oguzkerako azentoak edo, itzen luzamenak. Oraingo euskaldunik geienak, galdu egin dabe, ba, edo, ez dabe ikasi izan, euskerearen benetako oguzkera (azentoa).

Nasterik sortu ez daiten, aulan idaztea ondoen: "Joseba be, bere amagaz joan da" eta abar. Eta ez daukagu ere erabili bearrik.

Gure artean sartu izan dakigun beste lorrinkeria bat: "Baita-be..." Euskaldun-euskaldunak egundo be ez leuke esango olako atzekoz-aurrekadarik: "Neu be joan nintzan eta baita-be Imanol] ez baita-be neu" ez antzekorik, aulan baiño: "Neu bere joan nintzan eta baita Imanol be" eta "baita neu be" baiño. Zoritxarreko Be edo bere beti esangurearen azkenean. Bardin diñot au giputzentzat be.

Olango lorrinkeria asko idazten dabez oraingo idazleak eta ez dira oartuten, mezedetako beste kalte egiten diarduenik euskereari.

Eta beste oker bat: i-az edo y-az idatzi bearreko berbak be j-z idatzi daro. Markiña-aldekoak oguzi daro. Baia oguzkera bi doguz; batzuk joan, jausi, jatzi eta abar aulantxik idatzi bear dira: leku batzuetan j gastelarren erara oguzten dabe eta beste leku batzuetan lateran lez, baia yako, yatorko, yoako ta abar d asikera daben aditzari, d-ori d (dd) biurtuten dakioe; baita zuka-ko aditzari be, ikaerara biurtukeran: doa = yoak, dago = yagok, dator = yatok eta abar; eta ez, joak, jagok, jatok eta abar. D (dd) izan bear leuke asikera baia i zein y-az idatzita, ez dauko alde andirik d (dd)az.

Eta, zer dala-ta ari aditza erabili, diardu, iñardu, jardun, beutzo, daragoio ta abar bizkaieraz erabilten doguzan aditz ederrak bazter-tuta?

Beste oker bat: Bizkaieraz ez doguz esaten eliza, eskola, golda ta abar, azkeneko a ie edo ea biurtuta baiño: elizea, eskolea, goldea ta abar eta abar baiño. Euskaldun jatorrak ezegaitik be eleukez esango, eliza da ori; eskola da ori ta abar. Elizea da ori, eskolea da ori ta abar baiño.

Emen doakizue, ba, nire aolkua: Euskeraz idazkeran, itxi dagie-zala erderazko burutapenak eta sarri-sarri irakurri dagiela Azkue jaun euskalzale jakintsua genduanaren iztegi ederra...

Gure izkeran sartu dakiguzan beste lorrinkeria asko be ba-daukadaz esateko baia gaurkoz neikoa derizat, idazlan luzeak gogai-karri izan oi dira-ta.

AURRE APRAIZ BALENDIN

ELEIZA, bizkaieraz

Ez eizu pentsau, emengo onetan, Eleizearen ganeanjardungo dodanik, ez eta Eleizearen izkuntza politikearen ganean be. Bizkaieraz idazten eta berba egiten dogunok aspaldion bizi dogun euskera barruko diglosiak eragindako inteferentziatariko baten ganean baino.

Sarri be sarri irakurri edo entzungo zenduzan eliza, elizate, elizkizun. elizako. eliz-barruti, eliztar lako berbak bizkaierazko testu edo berbaldietan, egunkarietan, irratietan,...

Mendebaldeko toponimia be ez da moda orren eraginetik ate lotu, eta Elizalde, Elizondo, Leioako Elizatea lakoak irakurriko doguz Bizkaiko administrazio idazkietan zein kanpo seinalizazioan. Izatez, berbok euskera dira, euskera on-ona izan be, ganera. Baina berbok ez jagokoz Bizkai edo Mendebaldeko euskera deritxonari. Gure tradizio idatzian zein agozko bizkaieraz argi be argi onangoxeak agertu ta esaten doguz: **eleiza, eleizate, eleizkizun, eleizako, eleiz-barruti, eleiztar, Eleizalde, Eleizondo,...**

Orren guztiorren agergarri garbiak doguz, bada, Mendebaldeko toponimia zein antroponimia. Zaarrak izateaz ganera, zeatzak be badira. Kasu onetan, euskeraz, oi dan tez, antroponimia toponimiatik artuta dagoana jakinda eta txistukari frikarien Mendebaldeko bustidurea kontuan artuta: **Vj + z d V + x (eleizea d elezea/eleixia/eleixie), urrengo oneexek nabarmenduko doguz:**

Elخالde (Elejalde) - **Eleizalde**

Elخالپuru (Elespuru) - **Eleizburu**

Elخالا (Elejaga) - **Eleizaga**

Elخالبارري (Elejabarri) - **Eleizabarri**

Elخالبارريeta (Elejabarrieta) - **Eleizabarrieta**

Goikoelezea (Goikoelejea) - **Goikoeleizea...**

Elخالondo (Elejondo) - **Eleizondo**

Elخالoste (Elejoste) - **Eleizoste**

Elخالabeitia (Elejabeitia) - **Eleizabeitia**

Elخالكاراي (Elesgarai) - **Eleizgarai**

Elخالپe (Elespe) - **Eleizpe**

Elخالde (Elejalde) - Eleizalde auzo toponimioa urrengo errietan, gitxienez, gorde dabe: Arrankudiaga, Arratzu, Barrika, Basauri, Bedia, Elorrio, Ereño, Errigoiti. Forua, Galdakao, Gamiz-Fika, Gernika, Getxo. Gorniz, Gorozika, Ibarrangelu, Igorre, Ipazter, Larrauri, Leioa, Mendata, Muxika, Nabarriz, Zaratamo, Zeanuri, Zoilo.

Alandaze, bizkaierearen berezko nortasunari eutsi gura badeutsogu, beste gauza askoren artean, bertoko toponimia, antroponimia, tradizio idatzia eta agozko berbakereagaz bat datorrenari jaramon egin beariko geunskio. Au da, kasu onetan errotzat eleiza erabiltari, eta ez eliza.

**Iniaki MARTIARTU
BAKIO**

BIZIA BURRUKA DA, ONARTU EGIZU

Negarrez agertu zan jaio barria, bizitzako negar ta burruka guztien ezaugarri. Egun aundia zan gurasoentzat zorionez, baiña semeak otz asmetan eban amaren sabel jauregitik lur azalera agertukeran. Zentzunik eza dirudi, gurasoen poza batetik ta aurraren negarra bestetik, baiña danak alkarrekin konpontzekoak dira. Gizonaren aunditasuna ortxe agertu bear da ba, biziak berez dakarzan nekeak onartu ta poza ezarri bizitzeai.

Lenengo bizitz sailla neketsua ba da, ametsez beterikoa da. Ortik datorkio ume-arolari berezko zorgindura antzeko edertasuna. Adimen guztiak ez datoz bardin, batzuek orniduta argi dizdizetan jaioten dira, beste batzuek neguko illunpearen antzera ta almen laburrekoak giñanok, ba geunkan naiko zeregin A ta O bata bestea gantik banatzen zortzi illabeteren buruan. Saku zarra buruan artuta euria zanean, pozik, joaten giñan eskolara ta ori ez zan gogorrena, saku zuluetatik iges egiten euskuen artu eziñik genbiltzan izki maltzurak ta aurreko egunian baizen illun gengoan biaramon goizean.

Baiña baserriko mutilla, lurragaz burrukan egiten ebenen semea, ez saku zarrak, ez euriak, ez barruaren illuntasunak ez eben bildurtzen. Alan zala ta, jantzi abarka zarrak, sopitteen adabadatuak ta ez egoan atzerarik, naita ur preskua abarka zuluetatik sartu, trinki ta tranka, an giñoiezan barriro be A E I O U ikasi ondoren, ikasgaien gaiñerako letrak ikasten.

Geroago ta zaillagoak ziran izkiak eta zenbakiak ta adimena barriz ezin suspertu bere orma zar illunetatik. Lau ankakoak baiño zerbait azkarrago, baiña ezin etsi burua argitzeari. A zan benetako burruka onartua, zerbait egin nai, norbere izatea munduaren onerako izan zedin.

Gazte aroa eldu da. Odeiz beterik dago ingurua, ez bakarrik ortzian ta mendi gallur ta arruetan, gazte artean be lan giroa kinkan dago. Ta ez da burrukarik errezena, bizi egin bear ta lanik ezin aurkitu. Etorkizunaren ingurua lañotuta, illun baltz, agertzen da. Jorratu batera nai jorratu bestera, noz arte egongo ete dira atek itxita...

Euri ta edurraren ondoren eguzkia agertzen da ta lurra gauz bi orrek bearrezkoak ditu. Bizitz lañotsu ondoren agertuko dira argia, lana ta maitasuna, bizikerria barri baten asikera pozgarri legez. Gazteak ez dau kikildu ta atzerarik egin bear, bizia berez dauka aurrea bultzaka. Onartu beraz gaiztasunak ta menparatu bakez aldien joan-etorrian datozen oker ta naiez guztiak.

Enitanak, agintzailleak, arduradunak, atek edegi biziari ta zuk gazte, gertatu zure burua jakituriz, zentzunez ta biotz gizontasunez armen indarrez. Lana izateko bidea ez da andikeria, ez arrokeria, ez tirokeria,

anaitasunak ekarri bear deusku artu-emonen giroa, gizarteko uste ona ta ziurra ta lanaren itxaropena.

Norberekeriz lurra lantzea ez da zillegi. Aita baten semeak eskubide bardintsuak dakarrez lurrera, biziak eskatzen dituan eskubide ta eginbearrekin osoturik. Menperatu bearrekoak dira ba aundikeriaren goikeria, alperkeriaren txarkeria ta gizonak zortzen ditun azpijoko guztiak. Egiari aurka egitea gauzarik gaiztoenetakoa da, ta ain zuzen be, ortxe, dago biziaren sustraia.

Era ontako munduaren aurrean zara gaztea. Zuzengabekeriak ez dakar lanaren aurrerapiderik, ez gosea ibituterik, ez sendi barriaren etorkizunik. Guzti orreri arpegi emon bear dautsazu gizontasunaren egitez kikildu barik, gaiztakeriari bildurra sartu ta zuzentasunari bideak zabalduz.

Gorabera guzti onen ondoren, gurasoen lan ta nekeak datoz. Bizitza bere goiburura eldu da, guraso arduradun izanik. Orain ez dago bakarrik, ardurak ugaritu dira, giza-bizitzak eskatzen dauan eran. Len bat zan, orain bost dira. Bost bidar bizia kezkarriago ta egizko giza-semearentzat buruko miñak ta ardurak ugaritu dira sendian.

Lana gauza aundia da, zintzotasunez jokatu ezker, geldidika, gizonaren bizia urretu egiten dau. Ta bizi al izango ba da, solo lanean, aldatzetan ta lar artean atxur ta kodaiñari oratu ta zarta-zarta, ekin bear jako. Egunerik egunera doaz larrak ugaritzen ta etxe bizikerria gogorrago ta neketsuago biurtzen. Gaisoak ikutu dautso semearen biziari, osasuna makaltzen doa ta osagilleak ez dauka mutiltxoaren barri onik ez ixaropenik.

Au da neke guztien lorra ta burua. Larradi ta mendiko nekeetan bizia gaztetea ezer ez ba litz legez semea il zorian dago. Mundura agertuta beste barik, ba zoaz Joseba gure artetik, guk emen nai zinduguzan ta zu lurreko etxea ezagutu baño len, Aita onaren etxera zoaz. Zure bizia gurea baiño geiago Jaungoikoarena da ta Aitarik onenak artu zagizala bearrik, nekerik ta zoritxarrik ez dagon zorion lekuan, zuretzat betirako gerturik daukan zerutar Aberrian.

Gaiztasunetan gizona gizondu, edertu ta osotu egiten da ta biziak, aurrera, egin bear dau bere elburua lortzen, sortzetik ekarren aziaren eran. Baiña eriotza be, ixillean, bere triskantzak egiten ebilen. Aurreko anaia-eriotza bizibizirik egoalarik, bigarren mutilla aingeruzko sasoi onenian, ba daroa Jaun Egilleak bere zoriontasunera. Txomiñek agutu dau luna ume aroan, zorioneko da beti betirako, baiña bere gurasoak ondo negurtuak dira curen kristau siñismenean. Zorionekoak era onetan negurtu ta gizontasunez ta bakez bizia aurrera daroenak.

PAULIN

URKIOLA ARRIGARRI VI: BIZKARRA TA BIZKARRATARRAK

Urkiola'ko Santutegian lan aundia egin eban Bizkarra'tar D. Benito'k eta emengo lana amaitu zanean, Zakarias bere anaia Madrid'en gotzain egin eben, Katoliku Ekintzaren arduradun, eta arajoan zan gure D. Benito Areatza-Billaro'n artzipreste lez urteak egin ondoren. Eta anai bi orreik baiña askoz urrago izan dogu gure artean euren lobeaz zan D. Fernando Bizkarra. Au seminarioan ezagutu gendun gogo-zuzendari lez eta gero Gernika'n artzipreste lez, eta artzipreste lanagaz batera Gurpide'ren laguntzaille aundia izan gendun. Bizkarra'tarrak fede ta erlejiño-arloan zintzo ta zuzen jokatu eben eta arlo orretan eurai esker ona agertzea baiña besterik ez dagokigu.

Baiña bai aztertu geinke curen jokabidea erri-arazoetan, gauza bat besteagaz nastauta iruntzi-bearra izan ez dagigun. Bizkarratarrak jatorriz karlostarrak eta jokabidez espanatarrak izan dira, bear ba'da curen fedek ori eskatzen ebalako. Itzaltasunez begiraten dausagu aukera orreri baiña ez konturatu barik geuregandu, ori eurak be ez leukee nai izango, arazoa orrelan argi agertu ezkeru.

Zakarias Gotzaiñak idaz-lan asko ta sakonak idazten eban Ecclesia aldizkarian katoliku-ekintzari buruz batez be. Batzuk gogoan daukadaz, esaterako laterri-arteko maillego edo diru-prestatzeari buruz idatzi ebananak. Gaur be argibide dira eta orduan geiago.

Ez eban onartzen urrillaren 12n. egunean endaren eguna edo "Día de la Raza" ospatzea eta orregaitik egun orreri izena aldatzea lortu eban. Berak, agintarien adostasunagaz, "Día de la Hispanidad" izatea lortu eban. "Hispanidad" itza bera be Zakarias Bizkarra gotzaiñaren asmakizuna da. Or ikusten dogu nongo munduan daukan bere eragiña gotzain onek.

Gure Joseba Legartza'k idatzi dauan eta "La sinfonía incompleta de Urkiola" deritxon liburuan, sarritan agertzen da D. Benito Bizkarra'k egin eban lan ederra eta ni irakurri-ala zain nengoan: Ez ete da agertuko beste erri-arrazo ori? Eta, bai, agertzen da eta zorrotasun larregi barik baiña argi agertu be. Ona emen non eta zelan: 175n. orrialdean D. Pantaleon Uriarte abade arratiarra agertzen da abade sakristau lez eta D. Benito Bizkarra'ren geriza lez. Arratiar onek "El liberal" izparringia ekarten eban etxera eta D. Benito'ren aurrean irakurri, berau mindutearren. Laster bota eutsen aurpegira D. Benito'k eta bere erantzuna au izan zan: "Guztien eritxiak jakin bear dira". 289n. orrialdean gudaldian txarto erabillia izan zata agertzen dau D. Benito'k eta bere edestian oso txarto geratzen dira "gorri"en aldekoak eta santu lez erreketek eta beste soldaduak. Onek San Antonio ospatu eben Franco'ren emaztea, Soltxaga gudalburua eta Gasteiz'ko Bikarioa aurrean zirala (Bikario ori Ormazabal izango zan, Lauzurika Gotzaiña etorri baiña lenago ta georago 500 abade erbesteratu ebazana).

Ondo diño Joseba'k ori D. Benito'ren eritxia dala, baiña beste batzun eritxiak be entzun bearko dirala.

283n. orrialdean agertzen dau Joseba'k beste jazokizun polit bat: Jesus'en Biotzari altara bat egin eutsen santutegian eta D. Benito'k altara ori bedeinkatzeko baimena eskatu eban

eta emon be egin eutsen, ekintza bi egitekotan, bata altarea sagartzeko eta bestea irudia bedeinkatzeko. Egin zan bedeinkatzea eta bost abaderen artean ipiñi eben irudia altare-gaiñean, baiña baten batek ekintza ori salatu egin eban Gotzaiñaren aurrean: Jesus'en biotzari eskuetan España'ren lur-irudia ta "Reinare" itza ipiñi jakozan eta iru berbaldi egin ziran, bi erderaz eta bat bietara eta an egon ziran euskaldunak auxe esan eben: Urrengo gatozenezan eleizan bertan esango dogu euskaldunai euskeraz egiteko. Azalpen au egiten dauanak auxe diño gaiñera: Ori dana egiten dala abertzaleai min egiteko. Guzti ori guda asi baiña urte batzuk lenago izan zan.

Zeanuri'ra abade joan nintzanean, parroko agiritegian Billaro/Areatza'ko artzipreste ta D. Benito'ren eskutiz bat aurkitu neban eta orduan parroko zanari auxe agintzen eutsen: "Guda irabazi dogun ezkeru, sartu daiguzan errira oitura onak eta ez emon ezelan be baimenik dantza lotua egiteko". Batakian guda nortzuk irabazi eben! Geuk!

Eta, amaitzeko, zerbait irugarren Bizkarratarra dan D. Fernando'ri buruz: Abade ona zan, esan dodan lez. baiña Gurpide'ren aldi larrietan oso-osoan jarri zan Gotzain orren alde, beste gitxi batzuk alkartuta. Erri batzutara sendotza ospatzen be etorri zan, Gotzaiñak bearrezkotzat geunkazan baldintza batzuk beteten ez ebazala. Bere kidekoak ziran abadeak egozan errietan ospatu zan sendotza baiña beste errietan ez zan izan onartua eta erriko eskoitarrak bera artzera joan arren, ez zan egin ospakizunik. Lenengo errien artean Mungia ta Arrietan daukaguz eta bigarrenen artean Gamiz eta beste geienak.

Batera nator Joseba Legartza'gaz onetan: Urkiola'rentzat lagungarri aundia izan zala D. Benito, baiña... beste au be argi geratzen da.

OLAZAR'tar Martin'ek.

GUDEA ASI JAKU

Zori txarrez, gure edestia gudaz beterik dago. XX gizaldian izan dira gudarik gogorrenak eta zabalenak.

Asi-barria dogun XXI gizaldia, baita III milleurtea be, eta ona emen sortuta lenengo guda aundia.

Guda onen sorbide azkenengo ZER'en "Izukeri aundia" idazpuruaz idatziaren ondorena da: Islandarrak eta onein artean batez be Bin Laden dogu iturri, izukeri aundia berak egiña dalako.

Ipar-ameriketarrak ondo aztertu dabe arazoa, baiña euren lagun agertu diranakaz alkar-izketa egin be. Baiña azkenean guda izan da ikusi dan bide bakarria ain zabal dagoan izukeriarri erantuzteko. Izukeri au oraingoan islandar-rengandik dator.

Izango al da ondorena, bakea!

Euskerazaleak

LEGE ZARRA (FORUA) VI: BANAKAKOEN ARTEKO ESKUBIDEAK

Foruak, beste lege askoren artean, ba-daukaz batzuk erritarren eguneroko bizitza bideratzeko, geienak iru atal oneitan banatu leikez: Sendia, ezkontzea ta etorpideak edo erentziak.

Lege oneik gure foruaren zati on bat dira baiña ez dagoz or guztiak, ortik kanpora be ba-egozan erri-bizitza bizi-bizi agertzen eben oiturak. Idatzikeran olako oitura asko, zori txarrez, alboan geratu ziran.

Beste alde batetik, banakakoen arteko eskubide oneik dira gaur oraindiño bizirik dagozan bakarrak. 1.888n. urtean, Erritarren Legedia edo kodigoa idatzi zanean foruko legeak errespetatu egin ziran, baiña 1.959n. urtean, uztaillaren 30n. egunean foru-legeak batu ziran, ez zan kontuan artu oituren aurrerapena ta aldaketa. Ez dago ondo gaur XVI gizaldiko forua dan lakoa onartzea. Bizkaï'ko erria erakunde barria da, beti dago aldatzen, eta ez da jantzi bear antziñako jazki orregaz.

URIAK ETA ERRIAK

Foru-legeak batu gura diranean, gaiztasun aundi bat dakar lege-bide bi aurkitzeak: bata uriena eta bestea erri edo eleizateena. Oneik euren legedi bereizia dauke.

Erdi-arogan, 1.199n. urtean Balmaseda'ko uria sortu zanetik eta Errigoiti'ko uria sortu zan 1.376n. urtera arte, Bizkaï'ko Jaunak uri asko sortu ebezan, batzuk salerosketarako eta beste batzuk erri-zaintzarako eta guztiari euren legedi bereizia emoten eutsen. Lege oneik uri-bizitzara geiago begiratzen dabe forura baiño.

Ez dira ain asko lege orreik, guztiari Logroño'ko forua ezarten jakelako eta foru onek ez daukaz banakakoen arterako bi edo iru lege baiño. Ugao'ko foruan asita (1375) Alkala'ko forua ezarten jake. Oneik dira Ugao-Miravalles, Mungia, Larrabetzu eta Errigoitia. Or sartzen da urietara Gaztela'ko forua eta ondoren lez legedi bi dagoz alkarren aurka: Gaztela'koa urietan eta Bizkaï'koa errietan. Ortik iztillu asko sortu dira, batez be etxea errian egon eta jabea unan bizi danean. Orrei erriko forua zaintzeko agindua emon jaken XX ataleko 15n. legean.

Oneik dira Erritarren Legedia (Código Civil) dauken uriak: Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markiña, Ontxandiano, Ondarroa, Portugalete, Plentzia ta Balmaseda, gaiñera Orduña eta Bilbao osoa.

Olan dala, Bizkaia'n bitariko erritarrak dagoz: Errietakoak foruagaz eta urietakoak Erritarren Legediagaz (Código civil). Eta bitasun au forua dan bestean da zarra. Leñargitasuna balio-koa da urietan naiz errietan baiña sendi-legeak errietan baiño ez dira balioko.

SENDIA

Bizkaï'ko erri-bizitzearen ardatza sendia da. Sendiak aukeratzen dabe erriko ordezkaria eta oneik izango dira Gernika'ko batzarra osotuko dabenak, fogerak kontuan dirala. Sendia da jabetza eta etorpideak eratu bear dauzana. Ondo batuta dago sendia Etxeko jauna buru dala eta onek bere buruaren onari barik etxearen, sendiaren, onari begiratzen dautso. Etxetik urten

dabenak, sendikoak izaten jarraitzen dabe, etxe-eskubideak daukez eta ilten diranerako sendian dauke illobi-eskubidea, etxeko maian lekua dauke ezkontzetarako edo illetetarako... datozenean. Sendi-bizitza basetxearen inguruan eratzen da: etxea, soloak, basoak eta abar... dira Baserria edo basetxea osotzen dabenak. Gure abizenik geienak etxeetatik artuak dira, gu nor garan agertzeko erriaren eta etxearen izena erabilten doguzalako.

Etxeari itzaltasun aundia dautso foruak, esaterako Foru Zarraren LXXVII atalean auxe dator: Baitzeko arduradunak diran Prestamerua ta Merinoa, epaikariaren agindua ekartera etxe batera datozenean ez dira etxera urreratuko zortzi beso bitarte itzi barik, errizaiña bakarrik joango da etxera eta au be izkillu barik.

SENDI-ARDATZA (Troncalidad)

Etxe-Ardatzaren legeak dira etxea sendiagaz lotzen dabenak.

1.452 urteko forua arte, etxe-ardatzarenak ziran aurreti-koengandik artutako ondasunak, baiña urte orretako foruak ondasun erosiak be orretara sartzen dauz. Ardatz-legeak esan gura dau, sendiko ondasunak senditik kanpora ezin leikeela urten. Etxeko Jaunak saldu edo emon nai ba'dauz, beti etxe-ardatzekoakaz egin bear dau itun ori. Orrelan ez ba'da ez da balioko. Eta azken-naia, testamentua egiten ba'dau, ardatzeko senideen alde egin bear dau edo ez da balioko. Saltzeko edo aldaketa egiteko, lenengo ardatzeko senideai eskiñi bear jake eta orretarako foru-deia egin bear da eleizan eta iru igandetan meza nagusian, ardatzeko senideren bat erosle agertzen dan ikusteko eta agertzen ba'da oneri saldu bear jako gizon on batzuk ezarten daben salneurrian. Ori egin ezik urtebeteko epe-barruak ardatzeko senideak balio-bako biurtu leikee salketa.

EZKONTZEA

Ezkontzearen ospakizuna ta baldintzak Eleizearen esku izten dira, baiña ondasunai begira ondo zeaztuten dauz foruak eginbearrak: Emazteak duintasuna dauka eta ondasunak gozatu ta erabilli leiz eta senar-emazteen artean alkartasuna dago, ondasunetarako foru-alkartasuna deritxon bidea artuta. Orrek esan nai dau irabazitako ondasunak bienak dirala erdi-bana, ondasun oneik ezkondu ezkeru irabaziak, erosiak eta etorpidez artuak izan daitekez, guztiak erdi-bana.

Bietatik bat ilten danean, ondasunik erdiak dira alargunarenak, beste erdiak seme-alabenak. Orrelan alarguna ondo gertzen da, batez be, alkar-poderoso eginda, ondorengo nor izan aukeratu ba'leike. Eta seme-alabarik ez daukenean, alarguna ekarri ebazan ondasunakaz eta irabazien erdiakaz bere bidetik doa.

Senarrak ezin leikez ondasunak bere erara erabilli, biak artu bear dabez erabagiak.

OLAZAR'tar Martin'ek

GURE LURRA ETA GU LURTARROK (V): LUR-GAINEKO BIZIDUNAK

Esan dogu Bizkaia zelan agertu zan munduko beste lurralde guztien artean. Ondoren landak agertu ziran eta landetan pizti bedar-jaleak. Oneik jaki izan ziran pizti-jale ziran bizidunetzat. Orrelan dago ori gaur be.

Ondoren, irugarren aldi edo era tertziaria onen barruan, Añamendi sortuta gero, iru aldi dagoz: aldi laburra (oligozeno), aldi laburragoa (miozeno) eta aldi beteagoa (pliozeno). Aldi oneitan sortutako lurrik ez dago Bizkaia'n. Begiratu daigun zeintzuk diran aldi onetan landarak eta piztiak Bizkaia'n, lurgaiñeko bizidunak, lurgaiñe sortu-barri onetan. Bide batez ikusiko dogu lurrak berak zelako aldakuntzak izan ebazan.

Ixasoan algak egozan ugari eta lur-barruan beste landara lurkoi asko. Asieran odolkiak eta ireak ugari eta giroa beroago ta umelago biurtu zanean, zugatzak. Lenengoak aritzak eta pagoak izan ziran gaur baiño be baso aundiagoak osotzen ebezala. Garaudun landarak be agertu ziran eta batera abere garau-jaleak, egaztiak batez be. Landa zabalak egoikiak ziran pizti bedar-jale ta errodonentzat.



Giro orretan pizti errodonak ugaritu ziran geien: Elefanteak, rinozeronteak, zaldiak (oneik oso txikiak ziran eta oin bakoitxean bost beatz eukezan). Ausnartzailleak be agertu ziran, gazelak esaterako, baiña pizti-jaleen bildur ziran. Pizti jaleen artean espata-antzeko tigreia zan bat. Onek ago luzea eukan eta errez jaten ebazan pizti txikiagoak. Basurde antzeko bat be bai. Baiña azkenengo mota bi oneik galdu egin dira. Eltxo-antzekoak be oso ugari agiri ziran, mendi-gaiñeetan egazti asko eta zugatzetan tximiñoiak ugari. Aldi onetan sumendiak (bolkanak) bizi-bizi egozan eta pizti guztiak bidurrez bizi ziran.



Aztertu daiguzan ain ugari egozan sumendiak. Gure lurralde onetan aitz asko sumendietatik ager-

tuak dira eta ortik sortuak diran lur-azal tokiz aldatuak asko ikusten doguz. Esaterako sumendia izan zan Axpe mendia, Bilbao'ko ibaiaren aldamenean. Ortik agertu zan etxegintzarako ain egokia dan trakita arria eta kantera aundietatik atera ziran kaia egiteko arriak. Gernika'tik Solluberantza andesitak deritxoen mendiak daukaguz, esaterako Metxika. Antzekoak dira Fruniz'ko basaltoak.

Sumendiak ekarriak dira meatz batzuk: sulfuroburdiña, sulfuro beruna, sulfuro zink edo blenda. Olako asko dago Karrantza'n, batez be Matienzo-inguruan.



Labur-labur esateko, aldi laburrean (oligozeno)'n lur-barruko indarrak asko aldatu ebazan lur-azalak eta orduan utsitu ziran Trebiño ta Billarkaio'ko zingirak. Orrelan agirian geratu zan lurgaiñea dana, Errioxa eta Nabarra barrena izan ezik.

Aldi laburragoan (miozeno), Alpeak eragin aundia artu arren. Gure lur-gaiñea geldi dago, errekek euren bideak daukez, zingirak legoru egiten dira eta Errioxa ta Naparroa-barrena egirian geratzen dira.

Beteago aldian (pliozeno), onek amaitzen dau Irugarren aldi luze zau, Bizkai-lur oso-osoa agirian dago, euskal-lur osoa be bai.



Sartu gaitezcan laugarren aldira, eta itzaltasun bereziagaz sartu be. Azkenengo aldia da eta aldi onetan lur-azalen eta itxasoan gaiñetik, uretako piztien eta egaztien gaiñetik, gizakia agertuko jaku gure Bizkai onetan.

Laugarren aldi onen asieran eguratsaren giroa aldatu egin zan: Europa'ko iparraldea eta Europardiko mendi-moltzoak leiak, izotzak, estaldu ebazan eta pizti guztiak egoaldera iges egin bear izan eben. Zergaitik jazo zan ori ez dago argi oraindiño, baiña izartegiaren barruko arazoan bat izan bear eban, lurraren ibilbidea zerbait aldatu zalako edo lurraren ardatza bere tokitik alboratu zalako. Milloj

BIZKAIA

pare bat urte iraun eban jazokizun orrek eta aldi orreri pleistozeno eta uriolen aldia deritxo.

Aurreko iru aldietan urteak milloika zenbatu dira, baiña aldi onetan millaka zenbatuko doguz.

Izotz-aldi onen astarrenik ez da agiri Bizkaia'n eta gure mendiak txikiak ziran ezkerro, ez eben artu jazokizun orren ikuturik.

Egurats-giroaren aldaketa lenengo somatzen dabenak landarak dira. Lurpeko ikaztegieta aurkitzen diran lore-autsaren aztertzeak ikusita, auxe jakin dogu: Otz-aldietan landak ugaritzen dirala eta aldi epeletan zugaztiak. Landako bedarren artean orduan artemisa, kenopodio ta dryas daukaguz eta zugaztietan aritzak, pagoak, arteak eta urretxak, lerki edo piñuak eta gorostiak be bai.

Laugarren aldi onetan arpeetan dagozan marrazkiak doguz lekuko orduko piztiak zeintzuk ziran jakiteko, baiña aurkitu diran azur-egiturak eta agiñak be lagun doguz orduko piztiak zentzuk eta zela-koak ziran zeatz aztertze.

>=< >=< >=<

Orduko piztiak gaurkoak eurak dirala esan geinke, naizta izotz-aldiko pizti-mota batzuk gaur agertu ez, galduak izan. Or daukaguz elefanteak, ipopotamoak, eta azkenerantza mamuta. Piztitzar au ugari daukagu Kantauri-aldian eta elefante uletsua be esaten jako otzaren aurka laguntza izateko ule luzez jantzia zalako. Mamutagaz batera daukagu leizetako artza, edesti-aurreko gizonagaz batera bizi izan zana. Gaurko piztien munduaren aurrekoak diran bisonteak be aitatu bear dira. Onek aldi baten Europa osoa bete eban eta gaur Ameriketean bizi da. Uroa be Europa'n eta sortaldean erdi-arora arte bizi izan da. Renoa (gaur be lurraren ipar-erpiñean bizi da) eta auntza ta zaldia. Oneik leizetan agertzen dira eta eizari zan gizonak arrapatzen eban.

Laugarren edo kuartenario aldi onetan lurrak aztertzean, urak ekarriak aztertu bear doguz. Ez da beti jakiten noizkoak ziran. Azterketa egiteko lur-barrukoa eta itxas-barrukoa artuko doguz kontuan.

Lur-barrukoak: Itxas-ertzean dunak izaten dira, lenengo ibilkorrek eta gero geldiak eta geiago agertzen dira itxas-ertzean erreka-ondoetan baiño. Gure errekek ur-aundietakoak, gazteak eta eurbera aundi-koak diralako, beti daukez alde bietan ekarritako lur-moltzo aundi ta zabalak eta batzutan ortik sortua izaten da ibar osoa. Olako arlo aundiak dagoz Somorrostro'n, Bilbao'n, Gaminiz (Plentzia)'n eta Gernika'n eta ibar osora zabalduak dagoz Zalla'n, Mungia'n, Durango'n eta Orozko'n. Leizetan agertzen diran estalaktita ta estalagmita ain ederrak be sasoi onetakoak dira.

>=< >=< >=<

Itxas-barrukoak diran lur ekarriak gitxiago dira, sasoi onetan itxas-barruan egindako lur-pillaketak gaiñera agertu ez diralako. Itxas-ertza bera aldatzen dauana txaupena edo erosiñoa da eta auxe da itxas-ertz zorrotzak, leunak eta Gastelugatxe'ren antzeko ugarte-antzekoak sortzen dauzana. Dana dala, lur-pillatzearen antzekoak dira ondartzak edo areatzak, saldropoak (marismak), duna sendotuak. Azkenengo onein artean Gorliz'ko Astondo da gogoratu bearrekoa.


OLAZAR'tar Martin'ek




ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU



EUSKALDUN BARRIENTZAT

EUSKALDUN BARRIENTZAT



L - z ruadiezd





BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Au da gure kultura.

www.bbk.es

200 pezeta (1,20 Euro)

bbk²